

## BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

### 6305

*EBAZPENA, 2017ko abenduaren 28koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazte langabeak praktikan kontratatzeko laguntzen 2018ko deialdia argitaratzen da.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2017ko abenduaren 28ko batzarrean hartutako erabakiaren bidez, gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktikan kontratatzeko 2018ko laguntzen deialdia egitea onartu du. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretu bidez onartutako Lanbideko Estatutuen 10.2 artikuluko p) idatzi-zatian xedatutakoaren arabera, erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio hori argitaratzea.

Hori horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktikan kontratatzeko laguntzen deialdia argitara ematea. 2018ko deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu zen, 2017ko abenduaren 28ko batzarrean, eta ebazpen honi erantsi zaio.

Bigarrena.– Laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 28a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

## ERANSKINA

## GAZTE LANGABEAK EUSKAL ENPRESEN KANPOKO LANTOKIETAN PRAKTIKETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZEN 2018KO DEIALDIA.

Krisialdi ekonomikoak berekin ekarri du Euskadiko biztanleria aktibo gazteenaren artean langabezia-tasa handia izatea, edozein dela ere haien prestakuntza profesionalaren maila. Egoera horretan, gazteek, prestakuntza akademiko edo profesionala egiaztatuta izanda ere, beren titulazioarekin lotutako esperientziarik ez badute lanean, zailtasun handiak dituzte laneratzeko.

Era berean, enpresen gizarte-erantzukizunak gero eta garrantzi handiagoa du enpresen plan estrategikoetan, ez bakarrik lehiakortasuna indartzeko tresna den aldetik, baizik eta enpresen gobernu korporatibo ona sustatzeko tresna den aldetik ere bai, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-iraunkortasuna sustatzeko tresna bihurtzen baita horrela.

Horregatik, premiazkoa da gazte tituludunen enplegu-aukerak areagotzeko eta laneratzeko, okupazioa lortzen eta ingurune erreal batean lan-praktika eskuratzen laguntzeko neurriak hartzea. Eta horretarako, kontuan hartu behar da botere publikoen eta lan-merkatuan esku hartzen duten eragileen erantzukizuna dela –bereziki, enpresena– gazteen enplegarritasuna hobetzeko jardunak diseinatzea eta bultzatzen laguntzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua Europako Enplegu Estrategiarekin konpromisoa duen erakundea da eta nazioartekotzearen alde egiten du.

Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)) 2016ko uztailaren 27an jakinarazi zion Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluari, eta, bestek bestek, jarduketara-ardatz hauek ditu: D- Aukera-berdintasuna; horren gidalerroen artean dago D.2: «Gazteen enpleguari bultzada osoa ematea, gure gazteei lan arloan zein arlo pertsonalean garatzeko aukerak emanez»; ildo horretan kokatzen da laguntzen deialdi hau.

Horren ondorioz, titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak kontratatzeke egiten da deialdi hau. Praktikaldiko lan-kontratua izango da, eta gazteek laneko zereginak beteko dituzte denbora luzez euskal enpresen kanpoko lantokietan. Neurri horrekin, gazteek beren gaitasuna garatzea bultzatu nahi da, bai eta gazte horiek laneratzeko ere.

Beraz, programa honen azken helburua da egungo egoera ekonomikoak gogor zigortutako euskal gizartearen parte horren lan-aukerak hobetzea eta bultzatzea, eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta lan-merkatuaren kalitatea hobetzen laguntzea.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2017ko abenduaren 28 an egindako batzarrean gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktiketara kontratatzeke laguntzen deialdia onartu zuen. Hona hemen:

#### 1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak euskal enpresek praktiketara kontratatzeke oinarriak ezartzea eta horretara bideratutako laguntzak arautzea (4. artikuluan xedatu da zein enpresa izan daitezkeen laguntzen onuradunak). Izan ere, kontratazio horien bidez, gazteek lan-esperientzia hartzea eta laneratzeko aukera handiagoak izatea bultzatu nahi da.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta Europako Gizarte Funtsaren baterako finantziazioa.

1.– Deialdi honek arautzen dituen laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.010.000 eurokoa da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuaren baitan. Horietatik 505.000 euro 2018. urteko aurrekontu arruntean sartuko dira, eta beste 505.000 euro 2019ko konpromiso-aurrekontuan.

2.– 35 urte baino gutxiagoko gazte langabeak euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan praktikan kontratatzeko 2018ko finantzaketa-laguntzak ebatzeko, kreditu nahikoa eta egokia egon behar da Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urterako aurrekontu orokorretan, betiere Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikulua ondo onarazteko; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargutan egiteko diren gastu-espedituen aurreratutako tramitazioa araupezu zen.

3.– Deialdi honen babesean diruz laguntzen diren kontratuak Europako Gizarte Funtsaren laguntzaz finantza daitezke, EAEko 2014-2020 EGF Programa Operatiboaren esparruan edo Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan.

4.– Emango diren laguntzen bolumen osoak ez du adierazitako diru-zenbateko hori gaituzteko, ez eta hari egindako gehikuntzen ondorioz dagokion diru-zenbatekoa ere, baldin eta aurrekontuari aldaketaren bat egiten bazaio indarreko legediak araututakoaren arabera. Azken kasu hori gertatzen bada, argitara eman beharko da gehikuntza hori, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Deialdi honen baitan diruz lagundu ahal izango dira praktikaldiko lan-kontratuak, gutxienez 12 hilabeteko iraupenekoak, baldin eta lantokia EAEn finkatuta duten enpresek Espainiatik kanpo dituzten lantokietako lanpostuak betetzeko badira, kontratatzen diren langileak kontratua hasten den egunean 34 urte edo gutxiago dituzten gazte langabetuak badira eta egoera ahuleko langile-tzat jotzen badira, 5. artikuluan finkatutakoaren arabera.

Praktikaldiko lan-kontratuaren iraupena guztira zenbatekoa den alde batera utzita, diruz lagundutako aldia 12 hilabetekoa izango da gehienez, eta 2019ko urriaren 31n amaituko da beranduenez.

Diruz lagundutako praktikaldiko lan-kontratuek euskal enpresa baten kanpoko lantokian gutxienez 6 hilabetean aritzea bermatuko dute.

2.– Deialdi honen babesean praktikaldiko lan-kontratuarentzatko laguntza jasotzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Deialdiaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera onuradun izan daitezkeen enpresek kontratatu behar dituzte gazteak.

b) Kontratutako pertsonak Espainiatik kanpoko lantokietan jardungo dute lanean, artikulua honen aurreko idatzi-zatian xedatutako gutxienezko denboraz.

c) Kontratutako pertsonaren prestakuntza akademiko-profesionalarekin bat datozen lanpostuak betetzeko izango dira kontratuak.

d) Kontratuak idatziz formalizatu beharko dira, eta berriaz aipatu beharko dituzte honako hauek: langilearen titulua, kontratuaren iraupena, zein lanpostutan jardungo duen eta zein herrialdean egingo duen egonaldia (herrialde bat edo gehiago).

e) Kontratuak lanaldi osorako izango dira.

- f) Kontratuaren gutxienerako iraupena 12 hilabetekoa izango da.
- g) Urteko ordainsari gordina zenbatekoa den jaso beharko da kontratuan.
- h) Arduradun bat izendatu beharko da, kontratatutako lanpostuan egiten duen lanaren gaineko jarraipena egiteko.
- i) Edonola ere, praktikaldiko kontratuak bat etorri beharko du Langileen Estatutuaren 11.1 artikuluekin eta estatutu hori garatzen duen martxoaren 27ko 488/98 Errege Dekretuarekin.

3.– Diruz lagundutako praktikaldiko kontratazioek enplegu-sorkuntza garbia eragin beharko dute enpresaren Euskal Autonomia Erkidegoko lantokiko/etako langileria osoan, laguntza bidez kontratatzen diren pertsonak lanean hasi aurre-aurreko 12 hilabeteetan. Kontratazioaren egunean, kontratu berri horrekin enpresako langileen batezbestekoa igoko da.

Ondorio horietarako, baldintza hori ez da bete gabe geldituko langileen diziplinazko kalera-tze bidezkoengatik, dimisioagatik, desgaitasunagatik, adinagatik erretiroagatik, borondatezko lanordu-murrizketagatik, ezintasun iraunkor osoagatik edo ezgaitasun handi edo osoagatik.

4.– Ez da diruz lagunduko honako hauek kontratatzea: ez enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren ezkontidea, oinordekoak eta gainerako senideak, bigarren mailara arteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna arte, ezta sozietate izaera juridikoa duten enpresetako administrazio-organoetakoena edo zuzendaritzako kideena ere; eta azken horiek kontratatzea ere ez da lagunduko diruz.

#### 4. artikulua.– Enpresa onuradunak.

1.– Deialdi honetan, diruz lagundu ahal izango dira EAEn kokatutako enpresa pribatuak edo publiko-pribatuak, baldin eta kanpoan lantokiak, partaidetutako enpresak edo enpresa-talde bereko beste enpresa batzuk badituzte, kanpoan kokaturiko enprekin lankidetzak-hitzarmenak edo zerbitzu emateko kontratuak badituzte edo kanpoan ezartzeko prozesuetan badaude, eta, betiere, hala dela behar bezala egiaztatzen badute eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala edo fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
- b) Administrazio publiko batek edo gehiagok % 50eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa ez izatea.
- c) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan eguneratuta egotea.

Diru-laguntzak eskatzen dituzten enpresek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du, bai laguntza ematerakoan bai ordainketak egiterakoan, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikulua eta hura garatzen duen Erregelamenduaren (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa) 18., 19. eta 22. artikuluen arabera, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategintzaren 50.3 artikulua xedatzen duenari jarraikiz.

Hala ere, eskatzaileak berriaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, egoera hori egiaztatzeko agiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

- d) Erakunde eskatzaileak diru-laguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak izatea.

e) Zigor- edo administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik ez jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez jaso izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

f) Enpresa kontratatzaileak kontratazioaren eta deialdi honetako diru-laguntzen xede den lanpostua dela-eta enplegurik ez suntsitu izana, kontratazio berria egin baino urtebete lehenagotik eta diruz lagundutako kontratazioak dirauen aldian.

g) Enpresako Langileen Legezko Ordezkaritzari (aurrerantzean, LLO) deialdi honen babesean eta praktikaldiko kontratu bidez kontratatzeko asmoaren berri ematea, bete beharreko lanpostua eta kontratazio-aldia adierazita. Enpresak LLORik ez badu, horixe adierazi beharko du eskabidea-ekin batera, idatziz.

h) Ez egotea berreskuratze-agindu baten mende, Europar Batasunak diru-laguntza bat ilegal eta merkatu komunarekin bateraezin gisa deklaratu ondoren.

i) Krisialdian dagoen enpresatzat hartua ez izatea, 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 18. idatzi-zatiko 2. artikuluan zehaztutako definizioaren arabera (Kategorien araberrako Salbuespenen Erregelamendu Orokorra, 2014ko ekainaren 26an Europar Batasunaren Egunkari ofizialean argitaratua, aurrerantzean KSEO).

j) Ez egotea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluko gainerako ezein debeku-egoeratan diru-laguntzen erakunde onuradun izateko baldintzei dagokionez.

2.– Enpresei diru-laguntzak onartzeko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzultze- edo zigor-prozedura guztiak amaituta egotea.

5. artikulua.– Deialdi honen babesean praktikan kontratatutako diren gazteen betekizunak.

Pertsona gazteak kontratatzeko da deialdi hau, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan izatea bizilekua.

b) Talde hauetako batekoa izatea:

– 25 urtetik beherako pertsona gazteak.

– 25 eta 34 urte (biak barne) bitarteko pertsona gazteak, baldin eta ez badute ordaindutako enplegu finkorik izan kontratazioaren aurreko 6 hilabeteetan.

c) Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.

d) Honako multzo hauetakoren batean zehaztutako titulu bat izatea:

A multzoa: Unibertsitateko titulua.

– Unibertsitateko lizentziatua edo graduatua, ingeniaria, arkitektoa, masterra eta doktoretza.

– Unibertsitateko diplomatua, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa.

B multzoa: Unibertsitateko titulua.

– Araututako lanbide heziketako edo berariazko lanbide heziketako goi- edo erdi-mailako teknikaria. Honako bi tituluak ere aurrekoen baliokideak dira: teknikari espezialista (LH2) eta teknikari laguntzailea (LH1).

– Ofizialki aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulu batzuk.

– Profesionaltasun-ziurtagiria.

e) Bost urte baino gehiago igaro ez izana, ikasketak bukatu zirenetik edo, atzerrian lortutako tituluak badira, Espainian ikasketak baliozkotu zirenetik; eta desgaitasunen bat duen gazte bat kontratu behar denean, zazpi urte igaro ez izana. Hogeita hamar urtetik beherako gazteei egiten zaizkien kontratuetan ez dira aplikatuko muga horiek, Ekintzaileei laguntzeko eta enpleguaren sorrera eta hazkundera suspertzeko neurriei buruzko otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretuak 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

f) Helmugako herrialdeko lantokian lana egoki egiteko behar diren hizkuntza-gaitasunak izatea. Enpresak zehaztuko du zein diren hizkuntza-gaitasun horiek, eta titulu bidez edo maila jakiteko proba baten bidez egiaztatatu beharko dira.

g) Bete beharreko lanpostuari dagokion kotizazio-taldeko lanpostuetan ez izatea 6 hilabetetik gorako lan-esperientziarik.

6. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Praktikaldiko kontratu bakoitzak izango duen diru-laguntzaren zenbatekoa, urteko, kontratatzen den pertsona bakoitzaren titulazio-mailaren arabera zehaztuko da, honela:

A multzoa: 13.100 euro, betiere soldataren eta Gizarte Segurantzaren kostua 26.200 euro edo gehiago bada.

B multzoa: 11.800 euro, betiere soldataren eta Gizarte Segurantzaren kostua 23.600 euro edo handiagoa bada.

Inolaz ere ezingo dute diru-laguntzarik jaso soldataren eta Gizarte Segurantzaren kostuak batuta goian aipatutako zenbatekora iristen ez diren lan-kontratuek.

Ondorio horietarako, soldataren eta Gizarte Segurantzaren kostuak izango dira sektoreko hitzarmen kolektiboan edo enpresako negoziazioan hitzartu edo ezarritako ordainsari gordinei dagozkienak, hauek barne hartuta: oinarrizko soldata, jardueratik eratorritako osagarriak (ezagutza bereziak, konfidentzialtasuna, lan-txandak...) aparteko ordainsariak, mozkinen partaidetza, ekoizpenerako pizgarriak, aparteko orduak, enpresa-ekarpenak BGAERI eta geografiako toki jakin batean lan egiteagatiko bizileku-osagarria, bai eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren kuota ere.

Ez dira soldata-kostutzat hartuko espezieetan emandako prestazioak, bidaia, ostatu eta mantentzeagatiko dietak, ez eta enpresaren soldataz gainerako hartzekoak eta «gizarte-ekintza» deiturikoaren parte diren gastuak ere.

Asegurua kontratatzearen ondoriozko gastuak eta dagokion bisa lortzearen ondoriozkoak ez dira diruz lagunduko.



## 7. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira (l. eranskina), eta honako toki hauetan eskuratu ahal izango da hori: [www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus) web-orrian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lurralde-bulegoetan.

Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

2.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabidea sinatzen duenaren NANaren fotokopia, edo haren nortasun-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena; eta pertsona juridiko eskatzailearen ordezkari batek sinatzen badu eska-bidea, sinatzen duen pertsona horren legezko ordezkariaren egiaztagiria.

b) Enpresaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

c) Enpresaren eratze-eskriuren fotokopia.

d) Kanpoko lantokiarekin enpresa eskatzaileak duen erlazioa egiaztatzeko dokumentazioa. EAEko hizkuntza ofizialetariko batean aurkeztu beharko da dokumentazio hori.

e) Langileen Legezko Ordezkariari (LLO) egindako jakinarazpena, edo LLOrik ez bada, enpre-san LLOrik ez dela dioen berriarazko jakinarazpena eskabidean bertan adierazita.

f) Enpresaren legezko ordezkariaren erantzukizunpeko aitortpena, adieraziz kontratazioaren eta deialdi honetako diru-laguntzen xede den lanpostua dela-eta ez dela enplegurik suntsitu, kontra-tazio berria egin baino urtebete lehenagotik eta diruz-lagundutako kontratazioak dirauen aldian.

g) Enpresaren legezko ordezkariaren erantzukizunpeko aitortpena, adieraziz diru-laguntza jasoko duen kontratazioak enpresaren EAEko lantokian/etan langileen hazkunde garbia izatea dakarrela, 3.3 artikulua xedatutakoaren arabera.

h) Enpresa eskatzailearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko aitortpena, adieraziz enpre-sak zenbat pertsona langile dituen eta Berdintasun Planik duen ala ez. Erakundea diru-laguntzaren onuradun izanez gero, plan horren kopia eskatu ahal izango zaio edozein unetan.

i) Enpresaren legezko ordezkariaren erantzukizunpeko aitortpena, adieraziz enpresa ez dagoela krisialdian, deialdi honetako 4.1.h artikuluan finkatutakoaren arabera.

3.– Horrez gain, ondoren zehaztutako elementu hauek jasotzen dituen deskribapen-txostena izan beharko du eskabideak:

a) Diru-laguntza jaso nahi duen enpresaren deskribapen-memoria. Gutxienez honako hauek zehaztuko dira bertan:

– EAEko enpresa eskatzailearen deskribapena: enpresaren jardura, zein sektoretakoa den, langileak, kanpoko lantokiak eta horien kokalekuak, zein merkatutarako diharduen (bezeroen tipologia, jardueraren eremu geografikoa) eta nazioartekotze-plana. Horrez gainera, eta halakorik bada, kanpoan kokatutako enpresekin egindako lankidetzak-hitzarmenak edo kontratuak –zerbitzuak emateko direnak–, edota kanpoan ezartzeko prozesuan dagoela egiaztatzen eta justifikatzen duen dokumentazioa.

– Nazioartekotze-planaren esparruan, kanpoan kokatutako enpresekin zerbitzuak emateko egindako kontratuen esparruan edota haiekiko lankidetzaz hitzarmenen esparruan egingo diren kontratazioei buruzko justifikazioa, diruz lagundutako epealdiaren ondoren kontratazioak finkatzearen bideragarritasuna ondo zehaztuta.

b) Kontratazio-plana; hauek zehaztuko dira, gutxienez:

– Zer-nolako lotura duen planak enpresaren nazioartekotze-prozesuarekin.

– Kanpoan praktikaldiko kontratuen bidez beteko diren lanpostuei buruzko aurreikuspena, honako hauek zehaztuta: lanpostuaren/en izendapena, zenbat pertsona kontratatuko diren, arloa/k, funtzioak eta zereginak.

– Lanpostuak betetzeko behar diren titulazioak eta profilak, kontuan izanik bete beharreko funtzioen eta eskatutako titulazioaren arteko koherentzia. Lanpostuan jarduteko zein hizkuntza behar den/diren zehaztu behar da, bai eta zer maila eskatzen den ere.

– Kontratuak zenbat irautea aurreikusten den, eta hura gerora finkatzeko zer aurreikuspen dauden.

– Herrialdea, enpresa eta kanpoko lantokiaren deskribapena, hauek zehaztuta: bizilekua, jarduera, sektorea, langileak, kokapena, zein merkatutarako diharduen (bezeroen tipologia, jardueraren eremu geografikoa).

– Langileak urtean jasoko dituen ordainsari gordinak, eta gizarte-segurantzako kostuak, enpresaren konturakoak.

– Nork izango duen kanpoko egonaldian kontratatutako pertsonaren jarraipena egiteko ardura EAEko lantokian, 13.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

– Kontratuaren esku ipiniko diren baliabide osagarriei buruzko deskribapen zehatza: helmugako herrialderako joan-etorriak, ostatua kudeatzeko laguntza, beste pizgarri batzuk.

– Deialdi honen babesean kontratatuko persona bakoitzarekin sinatu behar den aseguru-polizaren deskripzioa, estaldurak eta aplikazio-epea adierazita.

c) Eskatutako diru-laguntza, 6. artikuluan zehazten den moduan.

4.– Eskabideak guztiz beteta ez badaude, edo 2. eta 3. idatzi-zatietan adierazitako derrigorrezko agiriak aurkezten ez badira, erakunde interesdunari 10 eguneko epean okerra konpon dezan edo aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio; eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta horrek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango dituela.

5.– Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2018ko irailaren 20an amaituko da.

8. artikulua.– Ebazpena emateko organo eskuduna, emate-prozedura eta ebazpena.

1.– Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak du prozedura izapidetzeko eskumena, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, berriz, ebaztekoa.

2.– Eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta hurrenkera horretan emango zaizkie diru-laguntzak deialdiko baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten guztiei, harik eta



finantzaketarako funtsak amaitu arte. Kreditua zabalitzen ez bada, behin aurrekontu-zuzkidura amaituta, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAA-n emango da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3.– Eskabideak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren esanbidezko ebazpen bidez onartu edo ukatuko dira. Ebazpenean, honako hauek jasoko dira: enpresa bakoitzari ematen zaion kontratazio-plana, ordaintzeko modua eta zenbatekoa, eta diru-laguntzaren justifikazioa.

4.– Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilekoa izango da, eskabidea aurkezten den datatik hasita. Gehieneko epea igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdun pertsonak onartua izan dela ulertzeko eskubidea du, administrazioaren isiltasunagatik.

5.– Enpresa edo erakunde interesdunak 10 eguneko epea izango du, zuzendari nagusiaren ebazpena jakinarazten den unetik zenbatzen hasita, emandako diru-laguntza onartzen duela adierazteko. Epe hori amaitzean, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, eta artxibatu egingo da.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

7.– Publizitate-printzipioa betetzeko, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenaz honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, deialdi honen babesean diru-laguntza zein enpresak jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten, eta, bestetik, zein enpresari emandako diru-laguntzak aldatu diren. Nolanahi ere, ebazpena berriaz eta banan-banan ere jakinaraziko da.

Enpresa onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) 115.2 artikuluan aipatutako zerrenda publikoan jasoko da.

9. artikulua.– Programan parte hartuko duten gazteak hautatzeko prozedura.

Praktikaldiko kontrataziorako hautagai diren gazteak hautatzeko prozeduran, honako hauek izan beharko dira kontuan:

1.– Enpresak, diru-laguntza onartzearekin batera, enplegu-eskaintza(k) aurkeztu beharko d(it)u Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hautagaien lehen hautaketa egin beharko du, enplegu-eskatzaile gisa inskribatutakoen artean, kontuan hartuta onartutako kontratazio-planeari aurreikusitako betekizun eta irizpide zehatzak bete behar dituztela enplegu-eskatzaileek.

3.– Eskaintza aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak zerrenda bat bidaliko dio enpresari, eskatutako lanpostu bakoitzeko hiru hautagai jasotzen dituen.

4.– Behin lehen hautaketa hori jasotakoan, enpresa onuradunak langileak hautatuko ditu. Horretarako, beharrezkoa bada, hautagaiak zer hizkuntza-maila duen eta lanpostuari egokitzen zaion ala ez aztertzeko egoki irizitako probak egingo ditu enpresak. Behin langilea/langileak aukeratu-takoan, enpresak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi beharko dio nor(tzuk) kontratatu d(it)uen.

5.– Hamar eguneko epean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez badu aurkezten programan parte hartzeko pertsonarik, edo Lanbidek proposatutako pertsonen hautaketa-probak gainditzen ez badituzte –hautaketa-prozesua ez dutela gainditu behar bezala justifikatuta–, enpresak beste hautagai batzuk proposatu ahal izango ditu, eta organismo autonomo horri jakinarazi beharko dio parte-hartzaile horiek nor diren, bai eta kontratazioak zein egunetan egitekoak diren ere. Gehienez ere 2 egun balioduneko epean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu beharko du ea proposatutako pertsonen betetzen dituzten bai deialdiko betekizunak bai onartutako kontratazio-planekoak; eta enpresari horren berri eman beharko dio.

10. artikulua.– Kontratutako gazteak ordezteak.

1.– Behin kontratazioa egindakoan, honako kausaren bat dela-eta bakarrik ordeztu ahal izango du enpresak kontratatutako gaztea: probaldia ez gainditzeagatik lan-kontratua amaitzea, kontratatutakoak lana borondatez uztea, edo kontratatutako pertsonaren baliaezintasuna edo heriotza.

2.– Kontratutako gaztea ordezteko, enpresak horren berri eman beharko dio Lanbideri idatziz, eta beste hautagai bat kontratatu nahi duela ere jakinarazi beharko dio. Printzipioz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako lehen hautaketa-prozesukoa izan beharko du kontratatu berriak.

3.– Lehen prozesuko hautagaien artean hautaketa egitea ezinezkoa bada, beste hautaketa-prozesu bati ekingo zaio, 9. artikuluko 3., 4. eta 5. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritik. Gehienez ere 4 eguneko epea emango da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hautagaiak proposatzeko eta enpresak langileak aukeratzeko.

4.– Formalizatzen den lan-kontratu berriak deialdi honetako 3. artikuluan eskatutako betekizun guztiak bete beharko ditu.

5.– Kontratutako gazteak ordezteagatik ez da, inolaz ere, emandako diru-laguntza handituko.

11. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Diru-laguntza honela ordainduko da:

a) Lehenengo, emandako diru-laguntzaren % 50 emango da, enpresaren kontratazio-plangintzan aurreikusitako kontratuak formalizatu ostean, eta dokumentu hauek aurkeztutakoan:

– Egindako kontratuen kopia.

– Senidetasunik ez izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honetako 3.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

– «Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena» deritzen bi txosten, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindakoak (RED sistemaren bidez eskuratuak), enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoak; bat, kontratatutako pertsonari enpresan alta eman aurre-aurreko hamabi hilabetei dagokiona, eta, bestea, kontratazioaren alta egunari dagokiona.

Ordainketa egin baino lehen, Lanbidek egiaztatuko du langilea Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda dagoela eta plantilla handitu egin dela.

b) Bigarren ordainketan, gainerako % 50a edo justifikazioaren ondorioz dagokion kopurua ordainduko da, diruz lagundutako aldia bukatutakoan eta behin diru-laguntzaren helburu diren jarduerak justifikatutakoan.

## 12. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta epea.

1.– Kontratuak amaitzen direnetik gehienez ere hilabeteko epean, eta betiere 2019ko abenduaren 2ra arte, egun hori barne, enpresa onuradunak azken justifikazio-memoria aurkeztu beharko du, dokumentazio hau duela:

a) Justifikazio-kontu ekonomikoa, ebazpenarekin batera emango den ereduaren arabera.

b) Praktikaldiko kontratu bidez kontratatutako gazteen zerrenda, kontratu bakoitzaren hasiera- eta amaiera-datak, bakoitzaren helmuga-herrialdea, egon ahal izan diren bajak eta ordezkapenak eta diruz lagundutako kontratua amaitutakoan enpresan jarraitzeko aurreikuspena, Ebazpenarekin eskuragarri jarriko den ereduaren arabera.

c) Deialdi honen babespean kontratatu diren langileen nominak. Nomina bakoitzari dagokion zenbatekoaren banku-transferentzia egin izana ere egiaztatu beharko du enpresak, agiri bidez.

d) Gizarte Segurantzarako kotizazioaren dokumentuak (kotizazioen likidazio agiria eta langileen izen-zerrenda), dagokien epekoak, eta ordaindu izana egiaztatzeko agiriak. Bai eta kontratatu bakoitzari buruzko kotizazio-datuen txostena ere (IDC dokumentua).

e) Enpresaren legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko aitortpena, egindako praktikaldiko kontratuak direla eta Gizarte Segurantzaren beherapenak eta/edo hobariak eskuratzeari edo eskuratzeko aukerari buruzkoa: eskuratuz gero, kontratatutako pertsona bakoitzeko hau adierazi beharko da: izen-abizenak, hobariari eta/edo beherapenari dagozkien hilabeteak, hileko zenbatekoa eta eskuratutako hobarien eta/edo murrizketen guztizko zenbatekoa.

f) Enpresaren legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko enpresak ez duela jaso xede eta helburu bererako bestelako laguntzarik ezein administrazio publikotatik. Xede eta helburu bererako bestelako laguntza edo diru-laguntzaren bat jaso badu, jasotako kopuruaren zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

g) Enpresaren legezko ordezkariak eta kontratatutako sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, kontratatu bakoitzak kanpoko lantokietan egin duen egonaldiaren hasiera- eta amaiera-datei buruzkoa. Kontratatu bakoitzeko adierazpen bat egingo da.

h) Hala badagokio, kasuan kasuko bisatuaren/en edo administrazio-baimenaren/en kopia/k, argi adieraziz kontratatutako pertsona/k zein den/diren.

i) Kontratatu den aseguru-polizaren kopia; bertan, behar bezala jaso behar dira honako hauek: zein diren deialdi honen babesean kontratatutako pertsonak, aseguru-estaldura eta estaldura-aldia.

j) Enpresa kontratatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, adieraziz ez dela enplegurik suntsitu diruz lagundutako kontratazioari dagokion lanpostuan, kontratazioaren iraupen-aldian.

Aurreko atal horietan aipatutako dokumentazio guztia euskarri elektronikoan eta paperean bidali beharko da.

2.– Kontratu bakoitzari diruz lagundutako epea azkenean urtebete baino gutxiagokoa izango balitz, diru-laguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko litzaioke, diruz lagundutako kontratuaren epera egokituz.

## 13. artikulua.– Enpresa onuradunen betebeharrak.

1.– Erakunde onuradunaren betebeharrak izango dira Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onar-

tutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

- a) Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.
  - b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatu beharko da bete direla diru-laguntza jasotzeko betebeharrak eta baldintzak.
  - c) Honako hauen egiaztatze-jarduketei baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomi Kontrolerako Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, eta Europako funtsen kontrol-instantziak.
- Diruz lagundu daitezkeen gastuek Europako Gizarte Funtserako aukeratuak izateko baldintzak beteko badituzte, enpresa onuradunean gastuaren kontabilitate-erregistro bat eraman behar da, aparteko kontabilitate-identifikazio batekin eta kontabilitate-kode egoki batekin.
- d) Helburu berberarekin beste edozein administrazio publiko honetatik edo edozeinetatik edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.
  - e) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat aldatu bada (izan objektiboa, izan subjektiboa), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.
  - f) Diruz lagundutako jardueren xedean edo izaeran nabarmen eragiten duen ezer gertatuz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari; era berean, jarduera horiek egiaztatzeko eta kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko prozeduretan laguntzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.
  - g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozeduraren bat izapidetzen ari bada, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.
  - h) Deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduketan komunikazio-, zabaltze-, edo argitalpen-material eta ekintza guztietan, beren-beregi jasotzea edo adieraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtsetan baterako finantziazioa – EAEko 2014-2020 EGIF Programa Operatiboaren esparruan edo 2014-2020rako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan–.
  - i) Tratu- eta aukera-berdintasunaren arloko betebeharrak betetzea, baita emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio-ezaren arlokoak ere.
- Egiten diren probetan eta/edo elkarrizketetan eta lanpostuetarako kontratatu beharreko pertsonen hautaketan tratu- eta aukera-berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioa aplikatzen dela bermatzea, baita enpresak pertsona hautagaiak aurkezten dituen ere.
  - Deialdi hau jakinarazi eta zabaltzeko, enpresak erabiliko duen dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, hizkuntza ez sexista erabili beharko du, emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro saihestu beharko du, eta irudi jakin bat sustatu beharko du, balio hauek izango dituen: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero identitate plurala.

2.– Orobat, diru-laguntza jasotzen duten enpresen betebeharrak dira honako hauek ere:

a) Kontratatutako gazteari bere lanpostuan egiten duen lanaren jarraipena egiteko arduradun bat ipintzea, kontratua amaitzean gaitasunetan zer aurrerabide izan duen balora dadin, eta horrela, enplegu-politika aktiboan zerbitzurako tresnak izan daitezten, gaztearen enplegarritasuna hobetze aldera.

b) Kontratua amaitzean, enpresak ziurtagiri bat egin behar dio langileari. Hor, honako hauek jaso behar dira, gutxienez:

- Praktikaldiko kontratuaren iraupena.
- Betetako lanpostuak, eta bakoitzean egindako zeregin nagusiak.

c) Deialdi honen babesean kontratatutako pertsona bakoitzarentzat aseguru bat kontratatzea, gutxienez estaldura hauek izango dituenak: bidaia, osasun-arreta, istripuak, gaixotasun larria, ospitaleratzea eta aberriratzea. Aseguru horrek kanpoan eginiko egonaldi osoa estaliko du.

#### 14. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomi Kontrolerako Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako funtsen kontrol-instantziak deialdi honen helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskatze- eta kontrol-ekintzak burutu ahal izango dituzte.

Horretarako, enpresak diruz lagundutako kontratazioen gaineko dokumentazio guztia gorde eta zaindu beharko du, gutxienez 2024ra arte, deialdi honen ondoriozko konpromiso eta betebeharrak guztiak betetzen dituela egiaztatzen ahal izateko.

#### 15. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako diru-laguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako gutxienerako eskakizunei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

#### 16. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak honako hauekin: kontzeptu eta helburu berberetarako administrazio honek edo beste batzuek edo beste erakunde pribatu edo publiko batzuek emandako diru-laguntzak, laguntzak eta diru-sarrerak. Bateragarriak dira, ordea, praktikaldiko kontratuetan Gizarte Segurantzako kuotetan egin daitezkeen murrizketa eta/edo hobariekin.

#### 17. artikulua.– Ez-betetzeak eta emandako diru-laguntzak itzultzea.

1.– Deialdi honetako erakunde onuradunek jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak – laguntzak ordaintzen direnetik aurrerakoak – itzuli beharko dituzte, baldin eta honako xedapen hauetan oro har aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badituzte: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 50.2 artikulua. Zenbatekoak eta interesak itzuli beharko dituzte, orobat, deialdi honetan ezarritako betebeharrak espezifikoak betetzen ez badituzte edo azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 53.1 artikuluan diru-laguntzak itzultzeko ezarritako kasuetarikoren batean sartzen badira. Itzuli beharrekoak itzultzeko, xedapen horretan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan

horretarako ezarritako prozedurari jarraituko diote (698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomia Erki-degoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu zen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezarri ziren). Aipatutako diru kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.– Diruz lagundutako lan-kontratuak diru-laguntzaren denboraldia amaitu aurretik iraungitzen badira, itzuli egin beharko da emandako diru-laguntza, dagokion prozedura izapidetuz. Nolanahi ere, enpresa kontratatzailearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik iraungitzen badira kontratuak, lan-kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta haren berri emango zaio laguntzaren erakunde onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaera edo gertaerak zehaztuta. Halaber, hamabost eguneko epea emango zaio, egokitzat jotako alegazioak edo egiaztagiria aurkez ditzan. Prozedura hori hasten denean, eten egingo dira egiteko dauden ordainketak, halakorik egonez gero.

4.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea gehienez 12 hilabetekoa izango da.

5.– Ebazpenak arauen bat bete gabe utzi dela iritziz gero, eta diru-laguntza osorik edo zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat ematen badu, interesdunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko gehieneko epea izango du, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da.

6.– Borondatezko epe horretan diru-laguntza itzultzen ez bada, diru-laguntza berreskuratzeko premiamendu-bidera jotzeko izapideak hasiko dira.

18. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betetzearen ondorioz lortutako datu pertsonalak bere titulartasuneko fitxategi batean sartuko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak. Fitxategi hori, «Enplegurako eta prestakuntzarako diru-laguntzak» izeneko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoak datu pertsonalak biltzeko dauzkan fitxategiak arautzen dituen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 10eko Aginduaren bidez dago araututa.

Halaber, pertsona interesdunek datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak izango dituzte, legeak onartzen duen eran; horretarako, hori adierazten duen idazki bat igorri beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

19. artikulua.– Lehiari buruzko Europako araudia.

Deialdi honetan jasotako diru-laguntzak 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren mende egongo dira; erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria merkatu erkidearekin bateragarri deklaritzen dira, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (Kategorien araberako Salbuespenen Erregelamendu Orokorra, KSEO).

20. artikulua.– Diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko arauak.



Diru-laguntzen deialdi honi honako arau hauetan jasota dagoen diru-laguntzei buruzko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa). Gainera, honako hauetan xedatutakoa aplikatu beharko da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duena– eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezarri baitziren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak.



## ERANSKINA

**GAZTE LANGABEAK EUSKAL ENPRESEN KANPOKO LANTOKIETAN PRAKTIKETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZAK**

URTEA:	<b>2018</b>
--------	-------------

ERAKUNDE ESKATZAILEA:	
-----------------------	--

SARRERA ERREGISTROA
---------------------

LURRALDE HISTORIKOA		
ARABA	01	
GIPUZKOA	20	
BIZKAIA	48	

LANBIDEK BETETZEKO											
2	0	1	8	C	P	E					
URTEA						ESPEDIENTE ZK.					



EUROPAR BATASUNA  
UNION EUROPEA  
EUROPAKO GIZARTE FUNTSA  
FONDO SOCIAL EUROPEO

LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA / SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Zerbitzu Zentralak / Servicios Centrales

Enpresetarako Zerbitzuen Arloa / Área de Servicios a la Empresa



## ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2018ko Irailaren 20an amaituko da.

## JARRAIBIDEAK

Eskabideak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz) edo Lanbideren enpleguko lurralde Bulegoetan aurkeztu behar dira.

Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Formatu digitalean beteko da eskabidea, eta zenbaki bat edo letra bat jarriko da lauki bakoitzean.

Ez dira onartuko datarik eta erakunde eskatzailearen sinadurarik ez duten eskabideak, eta eskabide honen amaieran zehazten den dokumentazioa erantsi beharko da.

## DATU PERTSONALAK JASOTZEARI ETA ERABILTZEARI BURUZKO SEGURTASUN POLITIKAREN ONARPENA

Zuk ematen dizkiguzun datu pertsonalak Enplegu eta Prestakuntzarako diru-laguntzak izeneko fitxategi automatizatu batean sartuko dira, zeina Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen baitu; Datuak Babesteko Euskal Bulegoari aurrez eman zaio fitxategi horren berri, eta datuen segurtasuna babesteko berme guztiak ditu.

Zure datuak beste administrazio publiko batzuei utzi ahal izango zaizkie, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 21. artikuluan ezarritako moduan eta lege horretan ezartzen diren kasuetan.

Halaber, erakunde eskatzaileak honako hau bermatzen du dokumentu hau sinatuta: dokumentu honetan dauden eta erakundearen titulartasuneko fitxategietan sartuta dauden datu pertsonalen titularrei aurrez jakinarazi zaiela Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 5. artikulua edukia, eta horien guztien berriazko baimena duela datu horiek tratatzeko.

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera, datuak ikusi, ezeztatu, zuzendu eta haien aurka egin dezakezu, halaxe onartzen baitu berriaz DBLOak. Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin jarri behar duzu harremanetan (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).



## 1. ENPRESA ESKATZAILEAREN DATUAK

Enpresaren izena edo izen soziala			
IFZ/IFK:		EJSN:	
Jarduera nagusia			
Web-orria:			
Helbidea:			
P.K:		Herria:	

LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK			
Izena:		Abizenak:	
NANA:		Kargua:	
Telefonoa(k):			
Helbide elektronikoa:			

HARREMANETAN JARTZEKO			
Izena:		Abizenak:	
Kargua:			
Telefonoa(k):			
Helbide elektronikoa:			

ESKAERAREN LABURPENA	
Zenbat kontrataziotarako eskatzen den laguntza:	
Eskatutako diru-laguntza, guztira:	

Eskabide hau guztiz beteta aurkeztu behar da eranskinetan adierazitako dokumentazioarekin batera. Halaber, ohartarazten da ezen errekerimendua egin eta hamar eguneko epean eskatzaileak dokumentaziorik aurkezten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

.....(e)ko .....aren .....(a)

<p><i>Legezko ordezkaria</i></p> <p>Sinadura:</p>   <p>Izpta.: _____</p> <p style="text-align: center;">(Sinatzailearen izena jarri)</p>
---

2017ko abenduaren 29a, ostirala



## 2. KONTRATATU BEHARREKO LANPOSTUEN ESKAERA ZEHATZA

	1.LANPOSTUA	2.LANPOSTUA	3.LANPOSTUA	4.LANPOSTUA
Lanpostuaren izena:				
Helmugako herrialdea:				
Helmugako hiria:				
Saila- Arloa:				
Eskutatako titulu akademikoa eta titulu-taldea:				
Eskutatako hizkuntzak eta maila: Oinarriakoa-Erdi-mailakoa-Goi-mailakoa:				
Bisa eta/edo administrazio baimena behar du (BAI/EZ):				
Kontratu hasteko aurreikusitako eguna:				
Kontratu amaitzeko aurreikusitako eguna:				
Gizarte Segurantzako Kotizazio Taldea (1):				
Sektoreko hitzamen kolektiboa (zehaztu eguna eta argitalpen aldizkaria):				

(1) Gizarte Segurantzaren kotizazio-taldea kontratatatu behar den pertsonari eskeritutako titulazio-mailaren arabera izan behar da.

2017ko abenduaren 29a, ostirala

KONTRATUAREN KOSTUAK	1.LANPOSTUA	2.LANPOSTUA	3.LANPOSTUA	4.LANPOSTUA
Urteko soldata gordina + Gizarte Segurantzza (enpresa):				
<b>ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA</b>	<b>1.LANPOSTUA</b>	<b>2.LANPOSTUA</b>	<b>3.LANPOSTUA</b>	<b>4.LANPOSTUA</b>
Urteko soldata gordina + Gizarte Segurantzza (enpresa), eskatutakoa:				
Lanpostu bakoitzeko eskatutako diru-laguntza, guztira:				
			<b>ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAREN GUZTIKO GLOBALA:</b>	





### 3. ENPRESAREN DESKRIKAPEN-MEMORIAREN EDUKIA

#### A) DIRU-LAGUNTZA JASOKO DUEN ENPRESAREN EDO ERAKUNDEAREN DESKRIKAPEN-MEMORIA

1.- EAEko enpresa eskatzailea:

- Zer SEKTORETAKOA da?
- Zer JARDUERA egiten du? (deskribatu produktuak edo zerbitzuak).
- Partaidetza publikoaren PORTZENTAJEA.
- Enpresak EAEn duen PLANTILLA (langile eta/edo bazkideen kopurua).
- KANPOKO LANTOKIAK (lantoki-kopurua, zein herrialdetan kokatuta dauden).
- Zer MERKATURi zuzentzen zaio?
  - Bezero-tipologia.
  - Jardueraren eremu geografikoa.
- NAZIOARTEKOTZE PLANA (Hala badagokio, lankidetzak-akordioak edo zerbitzuak emateko kontratuak kanpoan kokatuta dauden enpresekin, edo kanpoan ezartzeko prozesuan dagoela egiaztatzeko eta justifikatzeko dokumentazioa).
- 2.- Enpresa kanpoan ezartzeko eta nazioartekotzeko prozesuarekin lotuta egin beharreko kontratazioen justifikazioa; berariaz aipatu behar da kontratazioak finkatzeko bideragarritasuna, diru-laguntzaren xede den aldia amaitu eta gero.

#### B) KONTRATAZIO-PLANA

- ENPRESAREN NAZIOARTEKOTZE PROZESUAREKIKO KONTRATAZIO PLANAREN LOTURA.
- LANPOSTUAK
  - Lanpostu(ar)en izendapena.
  - Langile-kopurua.
- Enpresa(k) eta helmugako herrialdea(k) kanpoko lantokiaren deskribapena helbide-kokapenak, jarduerak, sektoreak, langileria, zuzentzen den merkaturia zehaztuz (bezero tipologia, jarduerako eremu geografikoa).
  - Helmugako Saila/k edo Arloa/k.
  - Lanpostu(ar) en funtzioak eta egitekoak.
- PROFILA
  - Eskatutako titulu akademikoa eta titulu-taldea.
  - Hizkuntzak (zehaztu maila).
- KONTRATAZIOA
  - Zenbat iraungo duen eta gerora finkatzeko zer aurreikuspen dauden.
  - Urteko ordainsari gordina eta Gizarte Segurantzako kostuak.
- SEGIMENDU-PLANA
  - Arduraduna (zehaztu kargua eta arloa).
  - Metodologia.
- NAHITAEZKO ASEGURUA
  - Aseguru poliza, kontratatutako persona bakoitzeko, hurrengo estaldurak barnera ditzala, gutxienez: bidaia, arreta medikoa, istripuak, gaixotasun larria, ospitalizazioa eta aberrirratzea. Aseguru honek kanpoko egonaldi guztia estaliko du.
- ENPRESAK KONTRATATUTAKO PERTSON(AR)ENTZAT IZANGO DITUEN BALIABIDE OSAGARRIAK
  - Joan-etorriak helmugako herrialdera.
  - Ostatu-kudeaketa.
  - Beste pizgarri batzuk.



**Bederatzigarrena:**

- Enpresak ez du gaur arte LLOrik; horregatik ez zaio eman deialdi honen esparruan egingo diren kontratazioen berri.

**Hamargarrena:**

- a. Enpresa eskatzaileak ez du administrazio publiko honen edo beste batzuen laguntzarik jasotzen xede eta helburu berarekin.
- b. Enpresa eskatzaileari ..... euroko laguntza eman dio.  
.....-(e)k (\*)
- c. Laguntza bat eskatu dio .....-(r)i (\*), eta ebazpenaren zain dago.

(\*) Adierazi erakundearen/enpresaren izena.

**Hamaikagarrena:**

Baimena ematen dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari bere nortasun- eta errolda-datuak elektronikoki egiaztatzeko. BAI  EZ

(Ez bada baimenik ematen, legezko ordezkariaren NANaren kopia aurkeztu beharko da).

**Hamabigarrena:**

- Enpresa ez dago berreskuratze-agindu baten mende, Europar Batasunak diru-laguntza bat legez kontrakoa eta merkatu komunarekin bateraezin gisa deklaratu ondoren.

**Hamahirugarrena:**

- Eskabide honetan sartutako datu guztiak egiazkoak dira.

.....(e)n, .....ko .....aren .....-(e)an

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua:

Izpta.: \_\_\_\_\_

(Sinatzailearen izena jarri)



## 5. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Diru-laguntzaren eskabidearen atal guztiak behar bezala bete behar dira, eta horrekin batera, honako agiri hauek guztiak aurkeztuko dira:

### I. DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBO OROKORRA:

- Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia edo datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.
- Legezko ordezkariak egiaztatzen duten notario-ahalordeen fotokopia.
- Enpresaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Enpresaren eratze-eskriuren fotokopia.

### II. PROIEKTUARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA:

- Enpresaren eta kontratazio-proiektuaren deskribapen-memoria, zeinak eskabidearen 2. eta 3. zenbakietan zehaztutako informazio osoa jaso beharko baitu. Gainera, enpresak, komenigarritzat jotzen badu, agiri osagarri batzuk ere aurkeztu ahal izango ditu.
- Enpresa eskatzaileak kanpoko lantokiekin duen harremana egiaztatzen duen dokumentazioa edo kanpoan ezartzeko prozesu batean murgilduta dagoela egiaztatzen eta justifikatzen duten agiriak. EAEko hizkuntza ofizialeko batean aurkeztu beharko da dokumentazio hori.
- LLOri egindako jakinarazpenaren kopia.